II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Behin betiko onestea 2019ko aurrekontu orokorra

Bat etorriz otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15.1 artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez 2019ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onartuta geratzen da; hau da laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

1. Langile gastuak	385.447,59 euro
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	805.188,20 euro
5. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	20.000,00 euro
6. Inbertsio errealak	3.700,00 euro
Gastuen egoera, guztira	**1.214.335,79 euro**

Diru sarreren egoera

3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	3.900,00 euro
4. Transferentzia arruntak	1.206.735,79 euro
7. Kapital transferentziak	3.700,00 euro
Diru sarrerak, guztira	**1.214.335,79 euro**

Aldi berean, eta 7/1985 Legearen 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, 16. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, kuadrillako lanpostuen zerrenda argitaratzen da:

LANGILE FUNTZIONARIOAK

PLAZAK	KOPURUA	TALDEA	ADMINISTRAZIO EGOERA	OROKORRA / BEREZIA	DESTINO OSAGARRIA	BERARIAZKO OSAGARRIA
Gizarte langilea B	1	A2	PHB	Berezia	26	16.156,23
Administrari laguntzailea Oinarrizko giz. zerbitzua	1	C2	PHB	Orokorra	19	10.622,87

LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK

PLAZAK	KOPURUA	TALDEA	ADMINISTRAZIO EGOERA	OROKORRA / BEREZIA	DESTINO OSAGARRIA	BERARIAZKO OSAGARRIA
Kudeatzaile legelaria	1	A1	PHB	Berezia	30	14.073,62
Gizarte langilea A	1	A2	B	Berezia	26	15.262,66
Administrari laguntzailea	1	C2	PHB	Orokorra	19	13.529,18
Euskara teknikaria	1	A2	PHF	Berezia	22	11.273,50
Berdintasun teknikaria	1	A2	PHF	Berezia	22	15.663,60

B: plaza beteta

PHB: plaza hutsik, baina bitarteko batek beteta

PHF: plaza hutsik, baina langile finko batek beteta

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

BATZAR OROKORREKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA DIRU ESLEIPENAK

— Kuadrillako lehendakaria: 1.500 euroko ordainsaria urteko.

— Kuadrillako batzarreko kide guztiek batzarraren bileretara edo parte diren beste organoen bileretara joateagatik, bai eta eskatzen dieten ekitaldi ofizialetara joateagatik: 75 euro, 3 orduko iraupenera arte. Aipatutako organoen bilera bat baino gehiago badago egun eta leku berean, edo kuadrillako batzarreko kideei ekitaldi ofizial batera baino gehiagora joateko eskatzen bazaie, ekitaldi bakoitzaren iraupenaren araberako dietak jasoko dituzte, ekitaldien iraupena batuta 3 ordu baino gehiagokoa bada.

Kuadrilla honetako aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Dena den, nahi izanez gero, aurreko lerroaldean adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu aurretik, erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztuko zaio Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrari. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2019ko ekainaren 26a

Lehendakaria
XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.07.05 05:32:16 Z